

www.unescoetxea.org

2012

**TXOSTENA
UNESCO ETXEA**

RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA



UNESCO Etxeko Gobernu Kontseilua. 2013ko maiatza.

2012. urtea zaila izan da ekonomiaren arloan. Lantaldeari sakrifizio handiak eskatu dizkiogu, batez ere soldatari dagokionez, eta hemen nabarmentzeko eta eskertzeko moduko erantzukizun profesional eta erakundearekiko estimazioz onartu dituzte.

UNESCO Etxea osatzen dugunon esfortzuarri esker, erakundeak eutsi egin dio, lan-neurri traumatikorik hartu behar izan gabe, eta, gainera, zentzu askotan esan dezakegu indartu eta umotu egin dela.

Elkarte garen aldetik, bazkide kopurua handitu dugu, eta jarraitzaile gehiago ditugu sare sozialetan (bai Facebooken, bai Twitterren); gure Gobernu Kontseilua sendotu egin dugu, beste hiru lagunekin, eta aipatzeko moduko jarduera-eritimoa izan dugu hiru lurraldeetan, baita gure senidea den Nafarroako UNESCONA erakundearekin lankidetzan ere.

UNESCO Etxeak nabarmen handitu du bere eragina nazioartean. UNESCON egiten dugun etengabeko lanaz gain, aurten, modu aktiboan parte hartu dugu Rio+20 Goi-Bileran, gure ekarpen propioekin, eta, are garrantzitsuago, prestakuntza-lanetan eta haren ondorioetan. Gure taldeko pertsona bat aho batez aukeratu dute Nazio Batuetako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko kide, aditu independente gisa, eta horrek argi erakusten du gure erakundearen nazioarteko lanari prestigioa eta kalitatea aitortzen zaizkiola.

Euskal arloan mugari bakarra aukeratu behar bagenu, gure herrialdeko bortizkeriaren biktimak aintzat hartzeko prozesuan izan dugun parte-hartzea nabarmenduko genuke; une batzuetan, funtsezko ekarpenak egin ditugu. Monika Hernando, gure programen koordinatzaile ohia, Sufrimendu Bidegabeak Balioesteko Batzordeko kide izendatu dute, euskal gizarte zibilaren ordezkari gisa, eta, gero, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendari; horrek baieztatzen du, lehenago aipatu dugun kasuan bezalaxe, gure lanak eta gure profesionalen onarpen handia dutela eremu horietan guztietan.

Aurreko memorieta esan genuen ikasi behar genuela erakunde gisa berritzen eta garai berrietara egokitzen; izan ere, garai berriak zailagoak dira, baina bereizitako desafio eta aukeraz beteta daude. Eta orain esan dezakegu ezen, ikasteko eta aurrera egiteko asko badugu ere, modu positiboan egokitzen ari garela, baina gure Eginkizunari, gure Ikuspegiari eta gure Balioei eutsiz.

Urte gogorak ditugu aurretik, baina interesgarriak eta, seguru, fruitu onez eta lorpen berriez beteak.

Erredakzio: UNESCO Etxeko lan-taldea
Edizioa: 2013ko ekaina
Editatzen du: UNESCO Etxea

Isozaki Atea – Bizikidetasun enparantza
Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala
48001 **Bilbao**
Tfna.: 94 427 64 32 Faxa: 94 427 25 48

Zapatari kalea 8.
01001 **Gasteiz**
Tfna.: 945 26 41 96
info@unescoetxea.org



UNESCO Etxea
www.unescoetxea.org



-en gaude



Klororik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan eta birziklagarrian inprimatua.
1 zuhaitz-mozketa, 415 litro ur -erabilpena, 355 Kilobatio/orduko argi-kontsumoa eta 87 CO₂ kilo-izurtzea

NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 133 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



* Gainera, Eusko Jaurritzarekin kolaborazioan 21 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan.

EGINKIZUNA ETA IKUSPEGIA

EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –pertsone bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.



SARE ETA ALIANTZAK

UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Milurteko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkaritza Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia (CONGO).
- Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroa (UBUNTU).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarteen Federazioa.
- Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia.

- Unescocat – Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax Institutua.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Global Campaign for Climate Action.
- End Water Poverty Coalition.
- Tck Tck Tck.
- Waterlex.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea (*eragin politikoa taldea*).
- Giza Eskubideetan Hezitze eta Bakearen aldeko Elkarteen. Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldea.
- Euskaltzaindia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Amalur Fundazioa.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- San Nicolás Arraun Taldea. Portugalete.
- Foro Erljijsoso Herritarra.
- Karpin Abentura.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.

BEKAK ETA ARGITALPENAK

UNESCO BEKEN PROGRAMA

- 1997 – 2012
- 158 PERTSONA
- 43 HERRIALDE

UNESCO Bekak kontinenteen arabera

- | | |
|-----------|-----|
| ▪ AMERIKA | 81 |
| ▪ ASIA | 42 |
| ▪ AFRIKA | 30 |
| ▪ OZEANIA | 5 |
| ▪ GUZTIRA | 158 |

UNESCO Bekak sexuaren arabera

- | | |
|-------------|-----|
| ▪ EMAKUMEAK | 122 |
| ▪ GIZONAK | 36 |
| ▪ GUZTIRA | 158 |

2012ko ARGITALPENAK

Catarata argitaletxeko 'Ensayos UNESCO Etxea' bilduman:
www.catarata.org web gunean eskuragarriak

- **Ideologías lingüísticas: práctica y teoría.**

Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- **Empoderando a las personas pobres mediante litigios en materia de Derechos Humanos.**

Berezko argitalpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- **Agua y alimentación por derecho.**
- **Diagnóstico de la cooperación vasca en materia de agua y saneamiento.**
- **Ecos de la serpiente. Experiencias de ida y vuelta en el Consejo de los derechos Humanos.**
- **Memorias de madera y cuero. El candombe en claves de género y patrimonio. (DVD)**
- **Garapenerako lankidetzan klima-aldaketa lantzeko proposamenak.**

PROGRAMAK

Pertsona guztientzako giza garapen iraunkorra eta bake bidezkoa eta egonkorra lortuko bada, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea. horietan dira, hain zuzen, UNESCO Etxearen helburuak eguneroko jardunean. hori dela eta, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzen dugu aintzat antolatzen eta bultzatzen ditugun programa eta ekimen guztietan.

UNESCO Etxeak 2012. urtean egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

GARAPENERAKO KULTURA



'Memorias de madera y cuero: el candombe en claves de género y Patrimonio' dokumentalaren aurkezpena. Gasteiz. Abenduak 19

2012. urtean, UNESCO Etxeak jarraitu egin zuen kultura giza garapenean txertatzeko lanarekin. Horretarako, hainbat jardueratan lagundu zuen, hala nola Ama-hizkuntzaren Nazioarteko Egunaren antolaketan eta UNESCOren Munduko Ondarearen Konbentzioaren 40. Urteurrenean. Halaber, estatuko nahiz nazioarteko hainbat topaketatan hartu zuen parte, besteak beste, 'Munduko Ondarearen Kudeatzaileen Espainiako VI. Topaketan', 'Internet eta hizkuntza-aniztasunaren sustapenari buruzko jardunaldian', 'Kultura, afrikar identitateak eta tokiko giza garapenari buruzko mintegian' eta 'Kultura Ondarea, Iraunkortasuna eta Tokiko Garapenari buruzko jardunaldietan'; prestakuntza-ekintzak ere egin zituen, hala nola 'Ura-bizitzaren esparruak: kultura eta demokrazia' lantegia.

Euskal Kultura Ondareari buruz lan egiten jarraitu genuen, gure lurraldean Munduko Ondarea sustatzeko jarduerak eginez eta Añanako Gatz Haranaren hautagaizari lagunduz UNESCOren Munduko Ondare gisa aitortu dezan.

UNESCOren Kultura Ondare Immaterialaren Konbentzioa zabaltzen saiatu ginen 'Emakumea ondare immaterialean' proiektuaren bitartez. Horren harira, 'Memorias de madera y cuero: el candombe en claves de género y patrimonio' ['Zurezko eta larruzko memoriak: Candombea, generoaren eta ondarearen ikuspegitik'] dokumentala egin genuen.

Gainera, hizkuntza gutxituak sustatzeko, lanean jarraitu genuen, EHUKo Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin batera; Errelatore bereziaren lanean lagun izan ginen, kultura-eskubideen esparrian, eta, ekintzen bidez, kultura-aniztasuna sustatu genuen, besteak beste, 'Egin ezazu ekintza bat aniztasunaren eta inklusioaren alde' nazioarteko kanpaina zabalduz.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

IRAUNKORTASUNA



Aitana Uribe eta Monika Hernando Ekintza Globaleko Egunean. Rio + 20 Goi-bilera. Rio de Janeiro. Ekainak 22

2012an, Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Gailurrak, Rio+20 izenekoak, markatu zuen ingurumenaren agenda. UNESCO Etxeak, gertaera gogoangarri horren garrantziaz jabetuta, urte osoan lan egin zuen instituzioekin eta gizarte zibilarekin, prestaketa-prozesuan, Gailurrean bertan eta ondoren, nola ez.

Prestakuntza-ikastaroak antolatu genituen, GKEak eta gizartea ahalduz, gailur handi horietan eragina izan dezaten.

Rio+20n izan ginen, eta Gailurreko gizarte zibilaren prozesuetan eta ekitaldietan aktiboki hartu genuen parte. Aipatu beharra dugu, batetik, euskaldun gazte bati eman zitzaizkion aukera UNESCO Etxeko taldeari laguntzeko eta handik bere bizipenen berri emateko, 'Blogger-UNESCO Etxea' bekaren bidez, eta, bestetik, 'Historiarekin hitzordua' nazioarteko bekarekin lankidetzan aritu girela; beka horri esker, gazte batek hitzaldi adore-emaile bat emateko aukera izan zuen mundu-mailako lider garrantzitsuen aurrean, Gailurrean hasieran. Sortu ziren aliantzei esker, ekitaldi paralelo bat antolatu genuen, beste batzuen laguntzarekin, Gailurrean bertan; eta, Gailurraren ostean, nazioarteko mintegi bat egin genuen, Bilbon eta Madrilin. Mintegi horretan, Gailurreko emaitzei buruzko hausnarketa kritikoa egin zen, eta etorkizunerako lan-proposamenak sortu ziren, Rio bukatu eta geroko eta 2015. urte pasatu eta geroko.

Hiritarrei begira, hitzaldiak, euskarazko itzulpenak eta Gailurreko azken agiriak zabaldu genituen, eta SOSeniblesTV kanpaina abian jarri genuen: gure planeta zaintzen laguntzen duten tokiko esperientziei buruzko komunikazio-, ezagutza- eta kontzientzia-web bat, pertsona guztiak garapen iraunkorrean inplikatzeko eta parte hartzea sustatzen duena. <http://SOSenibles.tv>

Rio+20rekin erlazionaturako prozesuez gain, 2012an, Iraunkortasun Programaren prestakuntza eta sentsibilizazio ohiko jarduerekin jarraitu genuen; besteak beste, 'Turismoa, kultura eta garapen iraunkorra' liburua argitaratzea eta aurkeztea, zine-forumen eta gazteentzako komiki-lantegien bidez klima-aldaketaren aurkako borrokarako sentsibilizazioa, eta Giza Garapenari buruzko Txostenaren urteroko aurkezpena, 'Iraunkortasuna eta ekitatea: etorkizun hobea pertsona guztientzat' izenburua duena.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK



UNESCOren Eskola Elkartuen Sareari buruzko jardunaldia. Monika Vazquez, Nieves Fernandez eta Nieves Mayarekin. UNESCO Etxeko egoitza. Gasteiz. Urtarrilak 23

Bake Kulturaren eta Giza Eskubideen alde egindako lanak, gure herrian nahiz mundu osoan, gure nortasunaren ezaugarrietako bat izaten jarraitzen du. 2012ko lau proiektu nabarmendu nahi ditugu:

Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Eskubideen V. Foroa antolatu genuen, idazkaritza teknikoaren lanak eta edukien koordinazio-lanak eginez. Foro horren izenburua *'Memoria eta aitorpena'* izan zen, eta parte-hartzaile garrantzitsuak izan zituen, euskaldunak, estatukoak nahiz nazioartekoak. Komunikabideetan, oihartzun handia izan zuen; jende asko joan zen, eta parte-hartzea bereziki handia izan zen.

UNESCOK, nazioarteko hainbat erakunderen laguntzarekin (besteak beste, UNESCO Etxea), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Gidaliburua argitaratu zuen, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloaren garapenean pentsatuta. Gure taldeko hainbat pertsonak edukietan parte hartzeaz gain, UNESCO Etxeak UNESCOren *'Empoderando a las personas pobres mediante litigios en materia de derechos humanos'* [*'Pertsona pobreak ahalduntzea giza eskubideen arloko auzien bidez'*] liburuaren gaztelaniazko bertsioa argitaratu zuen.

2012an, 8 bekaren bigarren deialdia antolatu genuen, *'Human Rights Internship Programme'* prestakuntza-lantegian parte hartzeko, Genevan, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 21. bilera-aldia egin zen bitartean, 2012ko irailaren 24tik 28ra. Programa Kontseiluaren bilera-aldien esparruan egiten da, eta, hari esker, NBE sistemak giza eskubideak babesteko dituen mekanismoen funtzionamendu praktikora hurbildu gaitzeko. Zati bat teorikoa izaten da, eta beste bat, praktikoa; izan ere, Giza Eskubideen Kontseiluaren hainbat organismoetan, parte-hartze praktikoa eta presentziala izaten dute parte-hartzaileek. GKEetako eta beste erakunde batzuetako langileentzat izaten da: bereziki, Nazio Batuek giza eskubideak babesteko dituzten mekanismoetan gizarte zibilak duen rolean sakondu nahi dutenentzat eta giza eskubideak beren erakundearen lanean sartzea errazten duten tresnak gertutik ezagutu nahi dituztenentzat. 8 pertsonak lortu zituzten beka horiek eta hartu zuten parte programan.

Gainera, 2012an zehar, ikastetxeetan, Bakerako hezkuntzaren alde lan egiten jarraitu genuen. Hala, UNESCOren Eskola Elkartuen Sarean EAEko zortzi ikastetxek parte hartzea koordinatu genuen, eta Europako Kontseiluak antolatutako *'Monumentuen inguruko Nazioarteko Argazki Esperientzian (EFIM)'* horietako bostek parte hartzea kudeatu genuen. Bi euskal ikasle sari bana jaso zuten beren inguruko kultura-ondareari egindako argazkiengatik, eta Strasburgoko nazioarteko gazteen topaketetan hartu zuten parte.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

GARAPENERAKO URA



'Ura birtuala eta elikadura' aurkezpena Isabel Gonzalez Rojorekin. Europar gazteen trukea. Begoñazpi Ikastola. Bilbo. Apirilak 19.

UNESCO Etxeak sentsibilizatuta jarraitu zuen uraren eta giza garapenaren arloan, giza eskubideen eta genero-berdintasunaren ikuspegitik, politika publikoek eta sektore pribatuak ura eta saneamendua izateko eskubidea babesteko duten zeresanari garrantzia emanez.

2012an, nazioarte-, estatu- eta erkidego-mailako hainbat ikastaro eta mintegi antolatu zituen. Nabarmendu behar da ONGAWA: Ingeniería para el Desarrollo Humano eta Prosalus: Salud y Desarrollo GKEkin batera hartu genuela parte Madrilen egin zen *'Agua y Alimentación, por derecho'* jardunaldian; handik, *'Agua y alimentación, por derecho'* argitalpena sortu zen. Liburu horretan, segurtasun hidrikoarekin eta elikadura-segurtasunarekin lotura duten funtsezko gaiak heltzen zaie, hala nola: lurrak gutxi batzuen eskuetan pilatzea, uraren erabilera anitzeko proiektuak eta ondasun zehatz bat ekoiztean kontsumitzen den ur birtuala.

Euskal gizartea akuilatzeko eta sentsibilizatzeko asmoarekin, Uraren Munduko Eguna ospatu genuen, URA: Uraren Euskal Agentziarekin batera. Horretarako, Arantza Atxaren argazkiez osatutako erakusketa bat eta zinema-ziklo bat antolatu genituen, Gasteizen, biak ala biak, *Uraren zikloa, bizi-zikloa* goiburuarekin.

Argitalpenei dagokionez, azpimarratu behar da *'Uraren eta saneamenduaren arloko euskal lankidetzaren diagnosis'* azterketa argitaratu genuela, ECODEREkin batera lankidetzan eginda, eta URAREN eta Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza jaso zuen. *'Los ODM y el agua. ¿Una historia de éxito?'* Mikel Mancisidorrek idatzitako artikulua izenburua da, eta Deusto Bussines Schoolek argitaratutako *'Estudios empresariales'* aldizkarian argitaratu zen.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

ORIENTAZIO-ZENTROA, KOMUNIKAZIOA ETA BEKAK

UNESCO Etxearen Orientazio, Komunikazio eta Beken Zentroak 1.700 erabiltzaile baino gehiago hartu zituen joan den urtean. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako ekimena da zentro hori. Kontsulta gehienek xedea da jakitea zer aukera dauden NBEn sistematan lan egiteko eta praktika profesionalak gauzatzeko. Ugariak izan dira, halaber, NBE eta UNESCOren gaineko informazio eta dokumentazio eskaerak eta bilaketak, baita UNESCO Etxeak antolatutako jardueren inguruko kontsultak ere.

Bi buletin elektronikoa atera ditugu: *'Prestakuntza eta enplegu buletina'* hileroko informazio hau jasotzen du: NBE-UNESCOren esparruan, zer aukera dauden prestakuntzan, enpleguan, praktikan edo borondatezko lanetan. eta *'Dokumentazio buletina'*. Bere xedea UNESCOren eta Nazio Batuen dokumentu ofizial interesgarriak eta argitalpen berriak zabaltzea da.

Web-orrialdean 214.460 sarrera izan dira, 141 albiste argitaratu ditugu, albisteen hamaika buletin kaleratu ditugu eta banatu ditugu agerkarira harpidetuta dauden 500 pertsona baino gehiagoren artean eta informazioa emateko 30 e-mail bidali dizkiegu 2.000tik gora kontakturi. Facebook gizarte-sarean ere hedapen zabalagoa lortu dugu, eta gure You Tubeko kanala eta twitter profila ere indartu dugu. Onda Vascaren kolaborazioarekin, asteazken bakoitzean berezko espazio batekin parte hartzen dugu 'Euskadi Hoy' irrati saioan.



UNESCO Beken Programa. 2012ko promozioa gure gerentearekin, Txabi Anuzita

Eusko Jaurilaritzaren beken programari esker, sei pertsona hasi dira lanean Asiako eta Amerikako sei herrialdeko UNESCOren bulegoetan. Gainera, bost pertsona beka berri dute bigarren urterako.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

JARDUNALDIAK

1 GIZA ESKUBIDEEN KULTURA SUSTATZEKO UNESCO/BILBAO SARIAREN III. EDIZIOA

Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/Bilbao Saria UNESCOren eta Bilboko hiriarren baterako ekimena da, UNESCO Etxea – Euskal Herriko Unesco Zentroaren babesa duena. Sari horren bidez, bi urtean behin, ekimen bikainak eta berritzaileak edo ibilbide eredugarriak saritzen dira. Sariak, halaber, iritzi publikoa sensibilizatzea du helburu, ohar dadin giza eskubideak errespetatzearen eta aplikatzearen aldeko kulturaren garrantziaz.

Lehen saria, 2008koa, Stéphane Hessel-entzat izan zen er bigareen saria, 2010koa, Asma Jahangir-entzat izan zen. Hirugarren edizioan, Irina Bokova, UNESCOren Zuzendari Nagusiak, azaroaren 27an ezagutarazi zuen, Bakearen 1984ko Nobel Saria irabazi zuen Desmond Tutu Artzapezikuari Saria emateko erabakia, irailaren amaieran Bilbon batzartu zen nazioarteko epaimahaiaren proposamenez.

Saria emateko ekitaldia UNESCOren Pariseko egoitzan egin zen, abenduak 10, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin bat eginez. Golardea Ibon Areso Bilboko Udaleko Alkateordeak, Irina Bokova UNESCOren Zuzendari Nagusiak eta Nasila S. Rembe sariko epaimahaikideak eman zuten.

2 NAZIO BATUEN EGKE BATZORDEAN PARTE-HARTZEA

Gure zuzendaria, Mikel Mancisidor, Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko kide izendatu du NBEk, New Yorken, 2012ko apirilak 26, eginiko bozketan.

Munduko hainbat herrialdeko 18 aditu independenteak osatzen dute. Giza eskubideak Babesteko sistema unibertsalaren organorik garrantzitsuenetakoa da

batzorde hori. Alde horretatik, eginkizun garrantzitsuak bete ditu eta betetzen ditu Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak garatzeko ahaleginean. Dakizueenez, horixe da, hain zuzen, gure erakundearen lanik inportanteenetako bat.

Nazio Batuek gure zuzendaria kargu horretarako hautatu izana, gure lanari eta gure eraginari eginiko aitortza da, baita UNESCO Etxearen ospea, gaitasunak eta aukerak areagotzeko aukera ere, gure Misiorekin eta Ikuspegiarekin bat etorritik.

3 'EMAN MINUTU BAT EKONTZIENTZIAREN ALDE' LEHIAKETA

'Eman minutu bat ...-ren alde' bideo lehiaketan 'ekontzientziaren' kontzeptua izan da hirugarren edizioaren ardatz eta mamia. Helburuak ziren gure bizimodua ingurumenean eragiten ari den kalteaz ohartaraztea, jokabide aldaketa bultzatzea eta planetaren baliabideak modu egokiagoan erabiltzea.

Lehiaketaren hirugarren edizioak minutu bateko ehun pieza inguru jaso ditu, Txile, Argentina, Brasil, Erresuma Batua eta Hungaria bezalako herrialdeko parte hartzaileak barne.

Kategoria nagusiko saria Eduardo Gonzalez bilbotarrak *'La deuda ecológica'* lanak eskuratu du. 'UNESCO Etxea Saria', Jorge Moreno Madrilekoak jaso zuen *'La suma de Lucía'* lanarekin. 18 urtetik beherakoei zuzendutako 'Ekin eta Egin' kategorian, Alejandro Gonzalez eta Eneko Alcalde bilbotarrak izan ziren *garaileak 'Recicla ¡te sorprenderás!'* bideoarekin. Saritutako bideoak gure Youtube kanalean aurki ditzakezu.

Sari banaketa Bilboko EITBren egoitzako Multibox aretoan izan da 2013ko otsailaren 8an, 300 pertsona baino gehiagoren aurrean.



DATU EKONOMIKOAK

UNESCO Etxeak bere finantzei buruzko informazio gardena eta zorrotza ematen dio gizarteari. Gure kontuak LKS Auditores, S.L.k ikuskatzen ditu.
Kontu-ikuskaritzaren txostenak www.unescoetxea.org helbidean daude.

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2012an laguntza eman baitigute bake-kulturaren eta giza eskubideen alde lanean jarraitzeko.

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN

Noticias de

Gipuzkoa
Eres lo que lees

Diario
Noticias de Alava



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Obra Social
Fundación "la Caixa"

ElectraVitoria
Orona

IRIZAR



ULMA

NegoBide
Círculo Empresarial
Negocios y Valores.org



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

onda vasca

Enkarterri Group
Asociación Empresarial de las Escarificaciones


Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

Sarrerak guztira 2012	943.918,62	
Ekarpen pribatuak	70.280,37	%7,44
Bazkideak	11.157,00	%1,18
Erakunde pribatuak	34.958,28	%3,70
Beste Batzuk (dohaintzak, liburuen salmenta, balorizazioak...)	24.165,09	%2,56
Ekarpen publikoak	873.638,25	%92,56
Eusko Jaurlaritza (*)	565.363,15	%59,90
Aldundiak (BFA- GFA)	130.139,16	%13,80
Udalak (Bilbao, Getxo, Basauri, Gasteiz)	64.326,03	%6,81
Atzerri eta Lankidetzeta Ministerioa	42.209,91	%4,47
UNESCO	36.000,00	%3,81
Beste batzuk (Lokalen lagapenaren amortizazioa)	35.683,29	%3,77

(*) **Eusko Jaurlaritzan:**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia %51,09; Uraren Euskal Agencia %3,77; Herri Administrazio eta Justizia Saila %0,90; Hezkuntza, Hizkintza Politika eta Kultura %4,14

2012ko Auditoriaren txostena



Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2012	956.630,00	
Orientazio-zentroa, komunikazioa eta bekak	102.079,20	10,67%
UNESCO Bekak	262.520,36	27,44%
EGKE Programa	10.529,66	1,10%
Iraunkortasuna Programa	155.376,80	16,24%
Garapenerako Kultura Programa	151.995,45	15,89%
Garapenerako Ura Programa	39.415,94	4,12%
Bake kulturaren eta Giza Eskubideen Programa	97.147,77	10,16%
Kudeaketa orokorra	117.564,82	12,29%
Funts-hornidura	20.000,00	2,09%

Egoera-balantzea 2012

AKTIBOA	2012
Aktibo ez-zirkulatzailea	266.679,65
Aktibo zirkulatzailea	733.734,69
Aktiboa guztira	1.000.414,34
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2012
Fondo propioak	42.646,99
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	845.432,64
Pasibo zirkulatzailea	112.334,71
Ondare garbia eta pasiboa guztira	1.000.414,34